En los puertos más concurridos se mantendrá el Servicio de Vigilancia y Seguridad. En el caso del T.H. de Gipuzkoa, tras la finalización de los contratos de seguridad y vigilancia de los puertos de Donostia y Getaria, en noviembre de 2026 ha dado comienzo un nuevo contrato que unifica la prestación del servicio en un único contrato en el que, además de los puertos de Donostia y Getaria, también se ha incluido el puerto de Hondarribia. Este contrato tendrá una duración de 24 meses y es prorrogable por otros 24 meses adicionales, por lo que durante el ejercicio 2027 estará plenamente vigente. Además de la prestación del servicio referido, en el ejercicio 2026 se ha redactado el proyecto que tiene por objeto la renovación del sistema de control de accesos vehicular al puerto de Donostia puesto que el sistema actual está generando numerosos problemas e incidencias y son continuas las reparaciones de la instalación en los últimos años. Por ello, es intención de esta Dirección licitar y ejecutar los trabajos de instalación de un nuevo sistema durante el ejercicio 2027. En lo que respecta al contrato de seguridad y vigilancia de los puertos de Ondarroa, Lekeitio, Mundaka y Bermeo en Bizkaia, el último trimestre de 2026 ha dado comienzo el nuevo contrato con una duración de 12 meses y prorrogable por otros 12 meses adicionales por lo que durante el segundo trimestre de 2027 esta Dirección tiene previsto tramitar la única prórroga posible del referido contrato que se prolongará hasta el tercer trimestre de 2028.

Bestalde, hirigintzaren arloan, Itsasertzaren Garapeneko, Portuen eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak portuko jabari publikoa kudeatzeko eta portuak antolatzeko hirigintza-planak izapidetzeko esleituta dituen eskumenen barruan, adierazi behar da Bermeoko Portua Antolatzeko Plan Bereziaren 3. aldaketa puntuala behin betiko onartzeko zain jarraitzen dela. Era berean, adierazi behar da 2025ean Zuzendaritza honek Zumaiako Portua Antolatzeko Plan Bereziaren 1. aldaketa puntualean atzera egitea erabaki duela, eta uko egin diola dokumentua izapidetzen jarraitzeari, ontziolaren etorkizuna argitu ondoren, epe ertain-luzera portuko erabileren eta espazioen premien azterketa zehatzagoa egiteko.

Por otro lado, en materia de urbanismo, dentro de las competencias que tiene atribuidas esta Dirección de Puertos, Asuntos Marítimos y Litoral en la gestión del dominio público portuario y la tramitación de planes urbanísticos de ordenación portuaria, señalar que a mediados de 2026 finalmente se ha aprobado definitivamente la 3ª modificación puntual del Plan Especial de Ordenación del puerto de Bermeo. De cara al ejercicio 2027, es intención de esta Dirección preparar el expediente de licitación, contratar e iniciar la Asistencia Técnica para la redacción de la 1ª Modificiación del Plan Especial de Ordenación del puerto de Mutriku, contrato que continuará los próximos años hasta obtener la aprobación definitiva. Esta modificación se considera necesaria y justificada dado que ya han pasado aproximadamente 25 años desde la aprobación del actual plan especial y tanto las necesidades de usos como de espacios han cambiado significativamente desde entonces en el puerto, siendo necesaria una reflexión y revisión de estos.

Bestalde, Euskadiko Kirol Portuak-EKPri agindutako zereginen barruan, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta Itsas Garraioaren ekainaren 28ko 2/2018 Legearen arabera, kirol-ontzi nautikoetarako amarratze-ahalmena eta kudeatutako instalazioen egoera optimizatzen eta hobetzen jarraituko da. Hala, Bermeoko Artzako kaian pantalanak jartzeko proiektua gauzatuko da, portu horretan amarralekuak jartzeko ahalmena handitzeko, eta aurrera egingo da Plentziako itsasadarreko ainguralekuak berrantolatzen. Gainera, nautika- eta kirol-erabilerako instalazioak egokitzeko, modernizatzeko eta mantentzeko behar diren inbertsioak egiten jarraituko da, eta portu-zerbitzuen prestazioa optimizatzen jarraituko da, etengabeko hobekuntzaren irizpidearen eta ISO UNE 9001, 14001 eta 45001 arauen arabera.

Por otro lado, dentro de las tareas encomendadas a Euskadiko Kirol Portuak-EKP, de acuerdo a la Ley 2/2018, de 28 de junio, de Puertos y Transporte Marítimo del País Vasco, se continuará optimizando y mejorando la capacidad de amarre para embarcaciones náutico-deportivas, así como el estado de las instalaciones gestionadas. Así, se ejecutará el proyecto para la colocación de pantalanes en el muelle de Artza en Bermeo, a fin de aumentar la capacidad de amarres en dicho puerto y se avanzará en la reordenación de los fondeos de la ría de Plentzia. Además, se continuará realizando las inversiones necesarias para la adecuación, modernización y mantenimiento de las instalaciones de uso náuticodeportivo y se continuará optimizando la prestación de los servicios portuarios bajo el criterio de la mejora continua y las normas ISO UNE 9001, 14001 y 45001.

Portuko itsas eremuko profesionalak trebatzeari eta hobetzeari dagokionez, Portuen, Itsas Gaien eta Itsasertzaren Zuzendaritzak bere lankidetza-ildoarekin jarraituko du, bai Euskal Herriko Unibertsitatearekin, bai Deustuko Unibertsitatearekin.

En cuanto a la formación y perfeccionamiento de las y los profesionales en el ámbito marítimo portuario, la Dirección de Puertos, Asuntos Marítimos y Litoral del Gobierno Vasco, seguirá con su línea de colaboración tanto con la Euskal Herriko Unibertsitatea como con la Universidad de Deusto.

Euskal Herriko Unibertsitateari dagokionez, "Saltillo" eskola-ontziaren nabigagarritasun-baldintza egokiak mantentzeko ekarpenarekin jarraituko du, nautikako ikasleen praktikak egiten eta, 2023ko ekitalditik aurrera, EAEko 16 eta 18 urte bitarteko gazteen artean merkataritza-nabigazioko ikasketak egiteko bokazioak sustatzen laguntzen baitu. Era berean, EHUrekin lankidetzan arituko da urtero egiten den Itsas Zuzenbideari buruzko Nazioarteko Kongresua planifikatzen eta gauzatzen, Itsas Zuzenbidearen arloko eduki berrienekin.

Respecto a la Euskal Herriko Unibertsitatea, continuará con la aportación en el mantenimiento de las adecuadas condiciones de navegabilidad del buque escuela «Saltillo», que contribuye a la realización de las prácticas del alumnado de náutica y, desde el ejercicio 2023, a promover vocaciones para la realización de estudios de marina mercante entre los y las jóvenes de 16 a 18 años de la CAPV. Igualmente, colaborará con la EHU en la planificación y ejecución del Congreso Internacional de Derecho Marítimo que anualmente se celebra, con los contenidos más actuales en el ámbito del Derecho Marítimo.

Deustuko Unibertsitatean, bestalde, 2000. urtean zehaztutako lerroan lan egingo da, besteak beste Portuetako Itsas Enpresen Kudeaketako eta Itsas Zuzenbideko Masterra nabarmen sustatzeko, eta, hala, itsas sektoreak behar duen profesional-haztegia izaten jarraitzeko.

En lo que a la Universidad de Deusto se refiere, se trabajará en la línea marcada desde el año 2000, para continuar con el impulso, de manera fundamental y entre otras actuaciones, del Master en Gestión de Empresas Marítimo Portuarias y Derecho Marítimo, para que siga siendo el semillero de profesionales que el sector marítimo necesita.

Itsas Merkataritzaren eremuko titulazio profesionaletan, inplikatutako aldeekin lankidetzan jarraituko da, horiek titulazioen igorpena arautzen duten hitzarmenetan (bereziki, SCTW hitzarmenean) nazioarte mailan ezartzen diren edukiak bete ditzaten.

En relación con las titulaciones profesionales en el ámbito de la Marina Mercante, continuará colaborando con las diversas partes implicadas con el fin de que éstas cumplan con los contenidos establecidos a nivel internacional en los diferentes convenios que regulan la expedición de estas titulaciones, especialmente el Convenio SCTW.

2026ko ekitaldian zehar, itsasoko eta portuko sektorea indartzen jarraituko da, elkarteei babesa emateko hainbat lerroren bidez. Horien artean nabarmentzekoa da Asociación de Navieros Vascos izeneko elkarteko kideen ontzietan nautikako ikasleen praktika profesionalak garatzeko laguntza.

A lo largo del ejercicio 2026, se mantendrá el impulso al sector Marítimo-Portuario a través de varias líneas de apoyo a diferentes asociaciones entre las que destaca la ayuda para la realización de las prácticas profesionales del alumnado de náutica que se realicen en buques pertenecientes a los miembros de la Asociación de Navieros Vascos.

2027an, euskal portuak sustatzen jarraituko dugu, azoka eta lehiaketetan parte hartuz. Zehazki, 2027an World Maritime Week bi urtez behingo kongresua egingo da. Portuen, Itsas Gaien eta Itsasertzaren Zuzendaritzak, ohi bezala, Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzarekin batera parte hartuko du. Kongresu horretan stand bat jarriko da portu-sektorean interesa duten pertsonei arreta emateko.

En 2027 se continuará con la labor de promoción de los puertos vascos a través de la participación en ferias y certámenes. Concretamente, en 2027 se celebrará el certamen bienal World Maritime Week. La Dirección de Puertos, Asuntos Marítimos y Litoral participará, como viene siendo habitual, junto a la Dirección de Pesca y Acuicultura. En dicho certamen se instalará un stand para atender a las personas interesadas en el sector portuario.

Kirol-titulazioei dagokienez, azterketa teorikoen zein praktikoen urteroko deialdietatik eratorritako gastuak jasotzen dira. Hau da, azterketa teorikoetarako materiala erostea, azterketa praktikoak egiteko itsasontziak alokatzea, azterketa-galderak itzultzea, azterketak irakurgailu optikoaren bidez zuzentzea eta epaimahaikideen dietak.

En lo referente a las titulaciones deportivas, se contemplan los gastos derivados de las convocatorias anuales tanto de exámenes teóricos como prácticos. Esto es, adquisición de material para exámenes teóricos, alquiler de los barcos para la realización de los exámenes prácticos, traducción de las preguntas de exámen, corrección de exámenes mediante lector óptico y dietas del personal integrante de los tribunales.

2027ko ekitaldian, Euskal Autonomia Erkidegoak kudeatzen dituen portuetan aplikatzen diren planak berrikusten eta eguneratzen jarraituko da, hala nola Barne Larrialdietarako Planak, Itsas Barne Planak edo Bermeoko Portua Babesteko Plana. Plan honetako prozeduren, ariketen, prestakuntzaren eta simulakroen kudeaketa kontratatuko da.

Durante el ejercicio 2027, se continuará con la revisión y actualización de los diferentes planes que se aplican en los puertos gestionados por la Comunidad Autónoma de Euskadi como son los Planes de Emergencia Interior, los Planes Interiores Marítimos o el Plan de Protección del Puerto de Bermeo. Se contratará la gestión de los procedimientos, ejercicios, formación y simulacros de este Plan.

2026an, Eusko Jaurlaritzak kudeatutako 15 portuen Itsasoko Barne Planak berrikusi dira. Plan horien helburua da portuetan itsasoa kutsatzen duen edozein gertaerari erantzuteko protokolo eraginkorrak izatea. 2027an, dagozkion eguneratzeekin jarraituko da.

En 2026 se han revisado los Planes Interiores Marítimos de los 15 puertos gestionados por el Gobierno Vasco. La finalidad de dichos Planes es contar con protocolos de respuesta eficientes ante cualquier suceso de contaminación marina en los puertos. Durante 2027 se continuará con la actualizaciones correspondientes.

Planek aldian aldiko ariketak eta simulakroak egitea aurreikusten dute, horien eraginkortasuna egiaztatzeko eta esku hartu behar duten pertsonei nolabaiteko entrenamendua emateko. Plan bi edo gehiago konbinatzen dituzten ariketak edo simulakroak aldi berean egin ahal izango dira, eta Gipuzkoan zein Bizkaian egingo dira. 2027an, portu-eremuko ariketa eta simulakro horiekin jarraituko da

Los diferentes planes contemplan la realización de ejercicios y simulacros periódicos con el propósito de comprobar la efectividad de estos, así como de procurar un cierto entrenamiento a las personas llamadas a intervenir. Podrán simultanearse ejercicios o simulacros que combinen dos o más planes y se realizarán tanto en Gipuzkoa como en Bizkaia. En 2027 se continuará con dichos ejercicios y simulacros en el ámbito portuario.

2027ko ekitaldian, portuetan gerta daitezkeen eta plan bat edo gehiago aktibatzea eragin dezaketen intzidenteei erantzuteko beharrezko materiala berrikusi, eguneratu eta, hala badagokio, berrezarriko da.

En el ejercicio 2027, se revisará, actualizará y repondrá, en su caso, el material necesario para dar respuesta a los diversos incidentes que puedan producirse en los puertos y que lleven a la activación de uno o más planes.

2026an, praktiko berri bat gaitu da Bermeorako eta Zumaiarako, aurreko praktikoa erretiratu egin baita. Maniobra-bolumen baxua dela eta, urteko konpentsazio bat aurreikusten da, aurreko urtean egindako maniobra-kopuruan oinarritua, eta, printzipioz, praktiko-aldaketak ez du eraginik izango. Era berean, Astilleros Balenciaga ontziolak bere jarduerarekin jarraituko du, bi urteko jarduerarik ezaren ondoren. Hori dela eta, portu horretan maniobrak ugaritzea aurreikusi da, eta horrek ere ez dio konpentsazio-metodoari eragingo.

Durante 2026 se ha procedido a la habilitación de un nuevo práctico para Bermeo y Zumaia, debido a la jubilación del anterior práctico. Dado el bajo volúmen de maniobras, hay prevista una compensación anual, basada en el número de maniobras realizadas en el año anterior que, en principio, no se verá afectada por el cambio de práctico. Asimismo, Astilleros Balenciaga va a continuar con su actividad tras una inactividad de dos años, por lo que se prevée un aumento de las maniobras en ese puerto, que tampoco afectará al método de compensación.

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
1.INBERTSIOAK EGITEA PORTU AZPIEGITURA BERRIETAN, ETA LEHENDIK DAUDENAK MANTENTZEA		**1.INVERSIONES EN INFRAESTRUCTURA PORTUARIA Y MANTENIMIENTO DE LAS EXISTENTES**
1.Portuetako azpiegiturak mantendu eta sendotzea, eta sakonera eta sarbide-baldintzak hobetzea.		1.Mantenimiento y refuerzo de infraestructura portuaria y mejora de calados y condiciones de acceso.
Dikeen eta/edo kaien azpiak berritu eta sendotzea, ml-tan.	**1.236**	M.L. de recalce y refuerzo de diques y/o muelles y escolleras.
Sakonera hobetzeko dragatze-lanak, m3-tan.	**121.000**	M3 de dragado para mejora de calados.
2.Portu-eraikinak eraiki, atondu eta eraberritzea.		2.Construcción, habilitación y remodelación de edificios portuarios.
Eraikin kopurua.	**1**	Número de edificios.
Eraikitako azalera, m2-tan.	**803**	M2 de superficie construida.
2.INBERTSIOAK EGITEA ITSAS KIROLETAKO INSTALAZIOETAN, ETA HAIEK MANTENDU ETA KUDEATZEA		**2.INVERSIONES EN INSTALACIONES NÁUTICO-DEPORTIVAS Y SU MANTENIMIENTO Y GESTIÓN**
Kirol-dartsenak.	**16**	Dársenas deportivas.
Pantalanetan atrakaleku gehiago jartzea.	**100**	Incremento dotación de atraques a pantalán.
Ontziar lurreratzeko guneak berritzea.	**1**	Remodelación de varaderos.
3.PORTUETAKO LEHORREKO ALDEA ETA UR AZALA GARBITU ETA INSTALAZIOAK ZAINTZEA		**3.LIMPIEZA SUPERFICIES TERRESTRES Y DE LÁMINA DE AGUA Y VIGILANCIA DE LAS INSTALACIONES PORTUARIAS**
1.EAEko portuetako lehorreko aldeak eta ur-azala garbitzea.		1.Limpieza de superficies terrestres y lámina de agua de los puertos de la CAPV.
Garbitzeko eta hondakinak biltzeko kontratuak.	**3**	Contratos de limpieza y recogida residuos.
2.Portuetako portu-instalazioak zaintzea.		2.Vigilancia de instalaciones portuarias en puertos.
Zaintzarako kontratuak.	**2**	Contratos de vigilancia.

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
4.PROFESIONALAK ETA GRADUATU-ONDOKOAK ITSAS GAIETAN PRESTATZEA ETA ITSAS GAIAK SUSTATZEA		**4.FORMACIÓN DE PERSONAS PROFESIONALES Y POSTGRADUADAS EN EL SECTOR MARÍTIMO Y FOMENTO DEL SECTOR MARÍTIMO**
1.Itsas Ardularitza Eskolaren jarduketak.		1.Actuaciones de la Escuela de Administración Marítima.
Itsas arloko profesionalak birziklatzeko jardunaldiak.	**3**	Jornadas para el reciclaje de los y las profesionales del sector marítimo.
Itsas Garraioaren Sektoreko Argitalpenak.	**2**	Publicaciones Sector del Transporte Marítimo.
2.Diru-laguntza Euskal Herriko Unibertsitatearentzat (EHU).		2.Subvención a la Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU).
«El Saltillo» ontziaren mantentzea.	**1**	Mantenimiento del buque «El Saltillo».
Itsas Zuzenbideari buruzko nazioarteko Biltzarra.	**1**	Congreso Internacional de Derecho Marítimo.
3.Lankidetza beste unibertsitate batzuekin.		3.Colaboración con otras universidades.
Diru-Laguntza Deustoko Unibertsitateari Itsas eta Portu Enpresen Kudeaketako eta Itsas Zuzenbideko Master-erako eta bestelako ekintzetarako.	**1**	Subvención a la Universidad de Deusto para el Master en Gestión de Empresas Marítimo- Portuarias y Derecho Marítimo y otras actividades.
4.Itsas/Portu sektorea sustatzen duten elkarteentzako diru-laguntza.		4.Subvención a Asociaciones para promoción del Sector Marítimo/Portuario.
Nautikako ikasleek praktikak egitea.	**1**	Prácticas de alumnado de náutica.
Itsas sektoreko erabiltzaileen eta profesionalen elkarteak.	**4**	Asociaciones de personas usuarias y profesionales del sector.
Euskal Herriko portuak sustatzea.	**2**	Promoción de los puertos vascos.
5.PORTU KUDEAKETAREN ETENGABEKO HOBEKUNTZA		**5.MEJORA CONTINUA DE LA GESTIÓN PORTUARIA**
1.Portuetan indarrean dauden planak berrikustea eta onartzea.		1.Revisión y Aprobación de los planes vigentes en los puertos.
Portuetako planak eta bitarteko materialak berrikustea.	**15**	Revisión de planes de los puertos y de los medios materiales.
Portuetan simulakroak eta ariketak egitea.	**2**	Realización de simulacros y ejercicios en los puertos.
2.Portuetan itsas kutsadurari aurre egiteko ekipamenduak berrikusi eta eguneratzea.		2.Revisión y actualización de equipos respuesta de contaminación marítima en los puertos.
Praktikajea	**1**	Practicaje

PROGRAMA

5411 NEKAZARITZA ETA ARRANTZA ALORREKO IKERKETA ETA GARAPENA

PROGRAMA

5411 INVESTIGACIÓN Y DESARROLLO AGROPESQUERO

ARDURADUNA

ELIKADURA, LANDA GARAPENA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA ELIKAGAIEN POLITIKA ETA INDUSTRIAKO ZUZENDARITZA

RESPONSABLE

ALIMENTACIÓN, DESARROLLO RURAL, AGRICULTURA Y PESCA
DIRECCIÓN DE POLITICA E INDUSTRIA ALIMENTARIA

MEMORIA

Ikerketa, Garapena eta Berrikuntza jasotzen dira programa honetan, eta helburua da EAEko nekazaritzako elikagaien eta basoen sektoreek bilakaera jasangarria izatea, epe ertain eta luzera. Helburu hori betetze aldera, ikerketa estrategikorako gaitasuna eta, ondorioz, ezagutza teknologikoa areagotuko dira, eta ikertzaileen eta teknologiaren esparruan lan egiten dutenen trebakuntza bultzatuko da. Sektorean berrikuntza areagotzea lortu nahi da. Berrikuntza, prozesu bat edo emaitza tekniko bat baino gehiago, gizarte-fenomenoa da, pertsonen eta gizarte osoaren sormena adierazten duena. Kontua ez da «soilik» produktu, teknologia edo prozesu «berriak» hobetzea; jasangarritasunera, kostuak aurreztera eta bizi-kalitatea hobetzera bideratutako eskemak eta jokaerak hartu behar dira kontuan hobekuntzak egiteko, hau da, nekazaritzako elikagaien sektoreak enplegu iraunkorra mantendu behar du.

Este Programa que engloba los conceptos de Investigación, Desarrollo e Innovación, tiene como objetivo final propiciar, en el medio y largo plazo, una evolución sostenible de los Sectores Agroalimentario y Forestal Vasco, desde la perspectiva económica, social y medioambiental. Para ello, se favorecerá el incremento de la capacidad investigadora estratégica y, consecuentemente, el del conocimiento tecnológico, y se favorecerá la formación de personal investigador, así como la de personal tecnólogo. Todo ello orientado al crecimiento de la innovación en el sector. La innovación, más que un proceso o un resultado técnico, es un fenómeno social que expresa la creatividad, tanto de las personas, como de la sociedad en su conjunto. No se trata, «simplemente», de hacer mejoras en «nuevos» productos, tecnologías o procesos, se trata de que las mejoras obedezcan a esquemas y modos de hacer orientados hacia la sostenibilidad, ahorro de costes y mejora de la calidad de vida, lo que implica, sobre todo, que el sector agroalimentario pueda mantener un empleo sostenible.

Programa bat dator «Eusko Jaurlaritzaren 2027rako aurrekontuetako ekonomia jarraibide»ekin, Elikaduraren, Landa Garapenaren, Nekazaritzaren eta Arrantza sailaren Plana eta Programekin, baita EBren 2030rako Estrategiarekin ere; horietan berrikuntza sustatzea eta industria eta lehiakortasun politika babestea lehentasunezko jardun eremuak dira ekonomia suspertzeko prozesuan. Era berean, Euskadiko gastronomiaren eta elikaduraren balio katean digitalizazio adimenduna garatzeko esparru estrategikoarekin bat dator. Esparru hori, era berean, fabrikazio aurreratuko Industria 4.0 ereduan oinarritzen da.

El Programa está en sintonía con las «Directrices económicas presupuestarias para el año 2027 del Gobierno Vasco», con los Planes y Programas del Departamento de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca, así como con la Estrategia 2030 de la UE, en los que el impulso a la innovación y el apoyo a la política industrial y de competitividad son áreas de actuación prioritarias en el proceso de reactivación económica. Asimismo, se alinea con el Marco Estratégico de desarrollo de la digitalización inteligente en la cadena de valor de la gastronomía y alimentación de Euskadi. Este marco, a su vez, se fundamenta en el Modelo Industria 4.0 de fabricación avanzada.

«Nekazaritza eta arrantza alorreko ikerketa eta garapena» izeneko programa horizontala da nekazaritzako elikagaien esparruan; izan ere, programa horren bidez ahalegin publikoa egin nahi da Euskadin nekazaritzako elikagaien eta arrantzaren balio-kateak pisu handiagoa izan dezan, gaur egun BPGdren % 10,7 baita gutxi gorabehera.

Con el Programa «Investigación y Desarrollo Agropesquero», de carácter horizontal en el área agroalimentaria, se pretende hacer un esfuerzo público en aras a lograr un incremento del peso de la cadena de valor Agroalimentaria y Pesquera en Euskadi que a día de hoy representa aproximadamente un 10,7% del PIB.

Adierazitako azken xede hori lortzera jotzeko, honako helburu instrumental hauek ezarri dira:

1. Teknologia-ezagutza handitzeko eta nekazaritzako elikagaien sektorearen beharrei erantzuteko moduko gaitasun ikertzailea inplementatzea, eta sektore horren teknologia etorkizuneko agertokietan garatzeko erakargarria izatea.

AZTI, NEIKER eta LEARTIKER (Basque Research Technology Allianceko kideak) bezalako ikerketa zentroekin lankidetzan, ikerketa-ildo estrategikoak prestatuko dira eta azpiegiturak modernizatzen lagunduko da, nekazaritzaren, arrantzaren, basogintzaren eta elikagaien industriaren ezagutza zientifikoetan aurrera egin ahal izateko.

Zentro horiekin elkarlanean aritu eta horiei laguntzeaz gain, enpresa eta ikerketa-taldeekin lehentasunezko harremanak izatea da garrantzitsua: hain zuzen, laneko oinarrizko helburuak lehen sektoreko ekoizpenari eta eraldaketaren industriari bideratuta dituzten enpresa eta taldeekin. Helburua lantaldeak eta teknikari taldeak egituratzea da: sailak berak lehentasuna ematen dien zientzia eta teknologiako emaitzei jarraipena emateko gai izango direnak, eta une bakoitzean zehaztu daitezkeen eremu eta beharrei lotuak: mahastizaintza eta ardogintza, basogintza, bioteknologia, baratzezaintza, elikagai ekoizpena, nekazaritzako elikagaien eta arrantzaren hondakinak, agroekologia, ekoizpenaren jasangarritasuna edo/eta arrantzako baliabideen eraldaketa eta kudeaketa jasangarria.

2. I+G sustatu, transferitu eta hedatzea eta nekazaritzako elikagaien enpresa eta erakundeen lehiakortasuna hobetzea, teknologia garatuz.

Nekazaritzako elikagaien eta arrantzaren sektoreei lotutako ikerketa, garapen eta berrikuntzarako Elikadurako eta Landa Garapeneko Sailburuordetzan dauden laguntzak NPBren Plan Estrategikoa (NPBPE) 2023-2027 programazio-aldirakoan sartzen dira.

Lehen sektoreari loturiko alderdietan eta hortik behera dagoen balioen katean berezituta dauden ikerketa-unitateak egituratzeaz gain, programa honetan, beste ikerketa-zentro, profesionalen elkarte eta sektoreko enpresa batzuetan egiten diren ekimenei lagunduko zaie, nekazaritza eta arrantzako eta elikagaigintzako eremuan berrikuntzarekin lotura duten gaietan berariazko egitasmoak garatzeko.

I+G ekintzak gauzatzeko gaitasun nahikoa duten sektore-eragile guztiei berrikuntza sustatzea eta hedatzea da estrategia, bai eta I+G sailak garatzeko eta sortzeko laguntza ematea ere. Horretarako, proiektuen eta sustatzaileen ezaugarrien araberako laguntzak sustatuko dira.

3. Berrikuntza lankidetzan

Berrikuntza-egitasmoak egiten laguntzea da kontua, eta bultzada ematea lankidetza-egitasmo aitzindariak, produktu berriak, merkatu berriak, enpresetan ekoizpen-prozesu berriak eta antolatzeko sistema berriak garatzeari. Lehen fase batean, enpresak izango dira bultzatzaileak, eta teknologia berritzaileak txertatzea eta egokitzea izango da helburua.

Para avanzar en la consecución del objetivo final enunciado, se definen los Objetivos instrumentales siguientes:

1. Implementación de capacidad investigadora estratégica para incrementar el conocimiento tecnológico y responder a las demandas del sector agroalimentario, así como actuar de elemento tractor en su desarrollo tecnológico en escenarios de futuro.

En cooperación con Centros de Investigación como AZTI, NEIKER y LEARTIKER (miembros de Basque Research Technology Alliance), se trabajará en líneas de investigación estratégicas y se apoyará la modernización de infraestructuras para avanzar en el conocimiento científico en las áreas agraria, pesquera, forestal y alimentaria.

Además de colaborar y apoyar a los mencionados Centros, resulta prioritario mantener relaciones preferentes con empresas y grupos de investigación cuyos objetivos básicos de trabajo estén orientados a la producción primaria y a la industria de la transformación, con el objetivo de estructurar equipos humanos y técnicos capaces de proveer en continuidad resultados científico-tecnológicos priorizados por el propio Departamento y vinculados a las áreas y necesidades que se puedan determinar en cada momento: vitivinicultura, forestal, biotecnología, horticultura, producción alimentaria, residuos agroalimentarios y pesqueros, agroecología, sostenibilidad de la producción y/o transformación y gestión sostenible de los recursos pesqueros.

2. Promoción, Transferencia y Difusión de la I+D para la mejora de la capacidad competitiva de empresas y organizaciones agroalimentarias.

Las ayudas existentes en la Viceconsejería de Alimentación y Desarrollo Rural en materia de Investigación, Desarrollo e Innovación en los sectores agroalimentario y pesquero se encuadran en el Plan Estratégico de la PAC (PEPAC) aprobado para el periodo de programación 2023-2027.

Independientemente de la estructuración de Unidades de Investigación especializadas en los aspectos relacionados con el Sector Primario y su cadena de valor hacia abajo, se apoyarán desde este programa iniciativas en otros Centros de Investigación, asociaciones profesionales y empresas del sector que desarrollen proyectos específicos en materias relacionadas con la innovación en el área agropesquera y alimentaria.

La estrategia es la promoción y expansión de la Innovación a la totalidad de los y las agentes sectoriales con capacidad suficiente para ejecutar acciones de I+D, así como el apoyo en el desarrollo y creación de departamentos de I+D. A estos efectos, se promoverán ayudas en función de los proyectos y de las características de quien las impulsan.

3. Innovación en Cooperación

Se trata de apoyar la elaboración de proyectos de innovación, animando al desarrollo de proyectos piloto cooperativos, nuevos productos, nuevos mercados, nuevos procesos productivos y nuevos sistemas organizativos en empresas que, en una primera fase, actúen como tractoras, de manera que incorporen y adecuen tecnologías innovadoras.

Horrela, lankidetzako berrikuntza-proiektuak bultzatzen dira, 2023-2027 programazio-aldirako onartutako NPBren Plan Estrategikoa (NPBPE) aurreikusitako laguntzen esparru-araudiak ezartzen duenaren arabera kudeatuko direnak.

4. Ikertzaileak trebatzea, honako hauen bitartez:

Laguntzen programa bat deituko da prestatzen ari diren ikertzaileentzat eta teknologoentzat. Prestakuntza-ereduak hobetu daitezen sustatu nahi da, pertsona horiek nekazaritza, arrantza eta basogintza sektoreetako ikerketa eta garapenari lotutako zereginetan lan egin dezaten. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko unibertsitate-zentroetan eta ikerketa-zentroetan emango da prestakuntza hori.

Prestatzen ari diren ikertzaileentzako laguntzak orain arte bezala emango dira, hau da, gradu edo master bateko titulua duten pertsonei emango zaizkie. Horrela, nabarmen egingo du gora nekazaritza, basogintza, arrantza eta elikadura sektoreetan doktore diren pertsonen kopuruak; giza baliabideak prestatuz, gainera, berritzeko aukera gehiago izango dituzte.

5. Laguntza ematea elikagai-alorreko I+G+b-ko erakunderik garrantzitsuenei: EHU, Artxandako Ostalaritza Eskola eta Basque Culinary Center diru-laguntza izendunen bidez.

6. Programa honen helburua da, halaber, euskal elikagaien sektorea gastronomian babestea eta sustatzea. Hauek dira Gastronomiako Plan Estrategikoak (PEGA) lortu nahi dituen helburuak:

1. Kalitate-, segurtasun- eta jasangarritasun-ezaugarriak dituzten bertako produktuen ekoizpena eta kontsumoa handitzea.

2. Industria transformatzailea bultzatzea, ekoizle eta bezeroekin konektatuta egongo dena eta konponbide osasungarriak emango dituena.

3. Euskal Gastronomiak Basque Country markarekin jauzi kualitatibo bat eman dezan erraztea.

4. Elikaduraren balio-kateko agente guztien lehiakortasunaren hobekuntza orokor bat sustatzea.

7. Euskadiko gastronomiaren eta elikaduraren balio-katean DIGITALIZAZIO adimenduna garatzeko esparru estrategikoarekin bat etorriz, nekazaritzako elikagaien sektorean digitalizazio-ekimenak bultzatzea eta Euskadin ezartzeko bokazioa duten enpresa berritzaileak erakartzea ezarri da helburutzat. Nagusiki, kudeaketa-jarduerak digitalizatzearekin lotutako ekimenak bultzatu nahi dira, hala nola logistika, stocken kontrola, xahutzea eta merkaturatzea.

De esta manera se impulsan proyectos de innovación en cooperación, que se gestionarán según establece la normativa marco de las ayudas previstas en el Plan Estratégico de la PAC (PEPAC) aprobado para el periodo de programación 2023-2027.

4. Formación de Personal Investigador.

Se convocará un programa de ayudas para personal investigador en formación y para tecnólogos y tecnólogas. El objetivo es promover una mejora en los modelos de formación que propicie la incorporación de estas personas a las tareas de Investigación y Desarrollo en los sectores Agropesquero y Forestal. Esta formación se desarrollará en centros universitarios y en centros de investigación de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación.

Las ayudas para personal investigador en formación mantendrán su orientación a las personas que estén en posesión de un título de grado y de máster, con el propósito de ampliar, de manera notable, el número de personas doctoradas en las diferentes ramas de los sectores agrario, forestal, pesquero y alimentario para, de esa manera, elevar su potencial de innovación desde la formación de recursos humanos.

5. Apoyo a organizaciones representativas de la I+D+i alimentaria como son la EHU, Escuela de Hostelería de Artxanda y Basque Culinary Center mediante la concesión de ayudas nominativas.

6. Este Programa también tiene como objetivo apoyar y potenciar el sector alimentario vasco en de la Gastronomía. Los objetivos perseguidos por el Plan Estratégico de Gastronomía (PEGA) son:

1. Aumentar la producción y consumo de productos locales con atributos de calidad, seguridad y sostenibilidad.

2. Potenciar una industria transformadora conectada con productores y clientes, aportando soluciones saludables.

3. Facilitar un salto cualitativo al sector de la Gastronomía vasca bajo la marca Basque Country.

4. Lograr una mejora generalizada de la competitividad de todos los agentes de la Cadena de Valor alimentaria.

7. En sintonía con el Marco Estratégico de desarrollo de la DIGITALIZACIÓN inteligente en la cadena de valor de la gastronomía y alimentación de Euskadi, se fija como objetivo el impulso de iniciativas de digitalización en el sector agroalimentario, así como la captación de empresas innovadoras con vocación de implantación en Euskadi. Se pretende apoyar, principalmente, iniciativas relacionadas con la digitalización de actividades de gestión tales como la logística, el control de stocks, el despilfarro y la comercialización.

8. Elikaduraren eta zuraren balio-kateetako enpresen tamaina txikia dela eta, beharrezkoa da negozio txikiak bultzatzea berrikuntzaren eta ekintzailetza eta barne-ekintzailetza sustatzera bideratutako ekintzen bidez, enpresa-ekimen berriei behar duten laguntza eskainiz. Horretarako, ONEKIN programari eutsi zaio. Programa horrek enpresei laguntzeko laguntzak ematen ditu, honako hauek kontratatzeko: negozioa abian jartzeko edo garatzeko aholkularitza-zerbitzuak, I+G proiektuen bideragarritasun-azterlanak, patenteak eta beste aktibo ez-material batzuk lortzeko, baliozkotzeko eta defendatzeko azterlanak, elikagaien segurtasunaren arloko ziurtapen-estandarrak eta berrikuntzaren eta digitalizazioaren arloko aholkularitza-lanak.

9. Eta, azkenik, HANDITU INNOVA izeneko programa bat mantentzen da, nekazaritza-ekoizpenaren berrikuntza teknologikoarekin lotutako inbertsio handiei laguntzean datzana. Horren bidez, tokiko eta eskualdeko ekonomiak bultzatu eta eraldatu nahi dira, berrikuntza teknologikoan inbertsio handiak eginez, ekoizpen-kostu zuzenak murrizteko, ustiategiaren lehiakortasuna hobetzeko eta negozio-aukera berriak sortzeko.

8. Dado el escaso tamaño de las empresas de las cadenas de valor de la alimentación y de la madera, es necesario impulsar pequeños negocios a través de la innovación y acciones encaminadas a apoyar el emprendimiento e intraemprendimiento, ofreciendo a las nuevas iniciativas empresariales el apoyo que necesitan. Para ello se mantiene el programa ONEKIN con ayudas de apoyo a las empresas para la contratación de servicios de consultoría y/o asesoramiento ligados a la puesta en marcha del negocio o su desarrollo, la realización de estudios de viabilidad de proyectos de I+D, de obtención, validación y defensa de patentes y otros activos inmateriales, obtención de estándares de certificación en materia de seguridad alimentaria, así como trabajos de consultoría en materia de innovación y digitalización.

9. Y finalmente, se mantiene un programa denominado HANDITU INNOVA, que consiste en apoyar a grandes inversiones relacionadas con la innovación tecnológica en la producción agraria. Con ello se aspira a traccionar y transformar economías locales y comarcales mediante grandes inversiones en innovación tecnológica para reducir los costes directos de producción, la mejora de la competitividad de la explotación y la generación de nuevas oportunidades de negocio.

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
1. IKERTZEKO AHALMEN ESTRATEGIKOA EZARTZEA, NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN SEKTOREAN EZAGUTZA TEKNOLOGIKOA AREAGOTZEKO ETA HAREN ESKAEREI ERANTZUTEKO, BAI ETA ETORKIZUNEKO AGERTOKIETAN HAREN GARAPEN TEKNOLOGIKOAN ELEMENTU BULTZATZAILE GISA JARDUTEKO ERE		**1. IMPLEMENTAR LA CAPACIDAD INVESTIGADORA ESTRATÉGICA PARA INCREMENTAR EL CONOCIMIENTO TECNOLÓGICO Y RESPONDER A LAS DEMANDAS DEL SECTOR AGROALIMENTARIO, ASÍ COMO ACTUAR DE ELEMENTO TRACTOR EN SU DESARROLLO TECNOLÓGICO EN ESCENARIOS DE FUTURO**
1. I+G-ko proiektuak, zentro zientifiko-teknologikoen bitartez.		1. Proyectos de I+D a través de los centros científico-tecnológicos.
I+G-ko proiektuak (Neiker-en bitartez).	**40**	Proyectos de I+D a través de NEIKER.
I+G-ko proiektuak (Leartiker-en bitartez).	**3**	Proyectos de I+D a través de LEARTIKER.
I+G-ko proiektuak (AZTI-ren bitartez).	**20**	Proyectos I+ D a través de AZTI.
2. I+G-aren TRANSFERENTZIA ETA HEDAPENA SUSTATZEA LEHIA AHALMENA HOBETZEKO NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN ENPRESA ETA ERAKUNDEETAN		**2. PROMOCIÓN TRANSFERENCIA Y DIFUSIÓN DE LA I+D PARA LA MEJORA DE LA CAPACIDAD COMPETITIVA DE EMPRESAS Y ORGANIZACIONES AGROALIMENTARIAS**
(IKERBAT programa, 1,2 eta 3 laguntza-lerroak)		**(Programa IKERBAT, líneas de ayuda 1,2 y3)**
1. Elikaduraren eta Zuraren Balio Kateari lotutako I+G proiektuak laguntzeko neurriak (ikerketa industrialeko edo garapen esperimentaleko proiektuak).		1. Medidas de apoyo a proyectos de I+D vinculados a la Cadena de Valor de la Alimentación y de la Madera (proyectos de investigación industrial o desarrollo experimental).
Eskaera-kopurua.	**75**	Número de solicitudes.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
Laguntzen den proiektu-kopurua.	**32**	Número de proyectos apoyados.
Erakunde onuradunen kopurua.	**50**	Número de entidades beneficiarias.
Eragindako gastuaren/inbertsioaren bolumena (M. eurotan).	**5**	Volumen gasto/inversión inducida (M. de euros).
3. BERRIKUNTZA LANKIDETZAN		**3. INNOVACIÓN EN COOPERACIÓN**
(IKERBAT programa, 4 eta 5 laguntza-lerroak)		**(Programa IKERBAT líneas de ayuda 4 y 5)**
1. (4. laguntza-lerroa): Nekazaritzako Elikagaien Europako Funtseko lankidetza-talde nekazaritzako elikagaien eta basogintzaren sektorearen produktibitatera eta jasangarritasunera bideratutako berrikuntza-proiektuak gauzatzeko laguntzak, arreta ekoizpen-katean jarriz, trantsizio berde eta digitalerako aldaketa-palanka gisa, bai lehen sektorean, bai landa-eremuetan.		1. (Línea 4): Ayudas a la ejecución de Proyectos de Innovación por parte de Grupos Operativos de la AEI Agri, dirigidos a la productividad y sostenibilidad del sector agroalimentario y forestal, poniendo el foco en el eslabón productivo, como palanca de cambio hacia la transición verde y digital, tanto del sector primario como de las zonas rurales.
2. (5. laguntza-lerroa): Lankidetza-taldeek berrikuntza-proiektuak egiteko laguntzak, baldin eta proiektu horiek nekazaritza, nekazaritzako elikagaiak eta landa-ingurunea modernizatzeko testuinguru-baldintzak sortzen laguntzen badute eta, gutxienez, Nekazaritza Politika Bateratuaren helburuetako bat betetzen badute.		2. (Línea 5): Ayudas a la ejecución de Proyectos de Innovación por parte de Grupos de Cooperación que favorezcan la generación de las condiciones de contexto necesarias para la modernización agraria, agroalimentaria y del medio rural y que cumplan, al menos, uno de los objetivos de la Política Agrícola Común.
Eskaera kopurua.	**18**	Número de solicitudes.
Laguntzen den proiektu kopurua.	**18**	Número de proyectos apoyados.
Erakunde onuradunen kopurua.	**42**	Número de entidades beneficiarias.
Eragindako gastuaren/inbertsioaren bolumena (M. eurotan).	**3**	Volumen gasto/inversión inducida (M. de euros).
4. GIZA BALIABIDEAK PRESTATZEA IKERKETARAKO, TEKNOLOGIARAKO ETA BERRIKUNTZARAKO		**4. FORMACIÓN DE RECURSOS HUMANOS PARA LA INVESTIGACIÓN, TECNOLOGÍA E INNOVACIÓN**
1. Ikertzaileak eta teknologoak prestatzea. (IKERTALENT programa)		1. Formación de tecnólogos y tecnólogas y personal investigador. (Programa IKERTALENT)
Beka berrien kopurua.	**22**	Número de becas nuevas.
Doktoretza-tesien kopurua (aurreko deialdikoak).	**8**	Número de tesis doctorales (convocatorias anteriores).
Destinoko zentroetako teknologoei egindako kontratu berrien kopurua.	**6**	Número de contratos nuevos de personal tecnólogo en centros de destino.
Proiektuen dibulgazio ekintzak.	**50**	Acciones de divulgación de proyectos.
5. LAGUNTZA EMATEA ELIKAGAI-ALORREKO I+G+b-KO ERAKUNDERIK GARRANTZITSUENEI		**5. APOYO A ORGANIZACIONES REPRESENTATIVAS DE LA I+D+I ALIMENTARIA**
1. Proiektu berritzaileei laguntzea.		1. Apoyo proyectos innovadores.
Lagundutako entitate-kopurua.	**3**	N. de entidades apoyadas.

PROGRAMA

7110 ELIKADURA, LANDA GARAPENA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA. EGITURA ETA LAGUNTZA

PROGRAMA

7110 ESTRUCTURA Y APOYO DE ALIMENTACIÓN, DESARROLLO RURAL, AGRICULTURA Y PESCA

ARDURADUNA

ELIKADURA, LANDA GARAPENA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA
ZERBITZU ZUZENDARITZA
KABINETE ETA KOMUNIKAZIO ZUZENDARITZA

RESPONSABLE

ALIMENTACIÓN, DESARROLLO RURAL, AGRICULTURA Y PESCA
DIRECCIÓN DE SERVICIOS
DIRECCIÓN DE GABINETE Y COMUNICACIÓN

MEMORIA

Egitura- eta laguntza-programa Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzaren eta Zerbitzu Zuzendaritzaren bidez garatzen da. Horiek laguntza ematen diote, zeharka, sail osoari, eta laguntza zuzena ematen diete, bai sailburuari, bai zuzendaritzei, aurreikusitako helburuak lortzen laguntzeko.

ZERBITZU ZUZENDARITZA

Zerbitzu Zuzendaritzaren bidez zerbitzu hauek ematen dira:

- Zerbitzu juridikoa: gai juridikoei buruzko aholkatze-lanak eta kudeaketa.

- Kudeaketa ekonomikoa: aurrekontua lantzea eta haren jarraipena eta kontrola egitea. Aldez aurreko kontu-hartzea eta kudeaketa-arlo desberdinei informazioa ematea.

- Kontratazioa: Aholkularitza eta obra kudeaketa , zerbitzu eta hornidurak kontratatzeko, administrazio-kontratu berezietarako eta administrazio-kontratazio eremuko beste edozein alderditarako. Sinatutako kontratuen jarraipen, intzidentzia, kexa, erreklamazio eta errekurtsoak tramitatuz.

- Antolamendua eta informatika: prozedurak definitu, ezarri, auditoretza-lanak egin, etengabe hobetu eta, beharrezkotzat jotzen denean, prozesuak mekanizatzea.

- Hizkuntza normalkuntza: Sailen artean eta Sailetik kanpokoekin harremanak euskaraz eduki ahal izateko planak kudeatzea.

El programa de estructura y apoyo se desarrolla a través de la Dirección de Gabinete y Comunicación y de la Dirección de Servicios que prestan apoyo, de forma transversal al conjunto del Departamento, y apoyo directo tanto a la consejera como a las Direcciones para contribuir a alcanzar los objetivos preestablecidos.

DIRECCION DE SERVICIOS

A través de la Dirección de Servicios se contemplan los siguientes servicios:

- Servicios jurídicos: asesoría y gestión de los asuntos jurídicos.

- Gestión económica: elaborar el presupuesto y realizar el seguimiento y control de este. Intervención previa y suministro de información a las distintas áreas de gestión.

- Contratación: Asesoramiento y gestión para la contratación de obras, servicios y suministros, contratos administrativos especiales y cualquier otro enmarcado en el ámbito de la contratación administrativa. Seguimiento de los contratos suscritos, tramitando incidencias, quejas, reclamaciones y recursos.

- Organización e informática: apoyo en la definición, implantación, auditoria y mejora continua de los procesos incluyendo, en su caso, la mecanización de los procedimientos resultantes.

- Normalización lingüística: gestión de los planes que faciliten la comunicación en euskera en y desde el Departamento.

- Berdintasun-politika: sailaren emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatu eta koordinatzea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen aginduei jarraikiz (lege horren testu bategina martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen) eta Emakume Nekazarien Estatutuari buruzko urriaren 15eko 8/2015 Legearen aginduei jarraikiz, eta 2030 Estrategian. EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Estrategian jasotako esku-hartze ildoei eta jarraibideei jarraikiz.

- Política de igualdad: impulsar y coordinar las políticas departamentales de igualdad de mujeres y hombres según los mandatos de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres cuyo texto refundido fue aprobado por el DL 1/2023 de 16 de marzo y de la Ley 8/2015 de 15 de octubre Ley del Estatuto de las Mujeres Agricultoras, y siguiendo las líneas de intervención y directrices recogidas en la Estrategia 2030. Estrategia para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la CAE.

- Saileko estatistika-organoa: Euskal Estatistika Planean jasotako Sailaren jarduera-arloetako estatistika-informazioaren beharrak asetzea eta Euskal Estatistika Antolakundeko organoetan parte hartzea.

- Órgano estadístico departamental: cubrir las necesidades de información estadística de las diferentes áreas de actuación del Departamento recogidas en el Plan Vasco de Estadística y participar en los órganos de la Organización Estadística Vasca.

- Pertsonaleko zerbitzua: Sailaren langileak kudeatu eta lanpostuak hornitu.

- Servicio de personal: Gestión y provisión del personal del departamento.

Ekitaldirako helburu orokorrak hauek dira:

Los objetivos genéricos que se plantean para el ejercicio son los siguientes:

- Sailari laguntza juridikoa ematea, indarreko araudian aurreikusitako txosten juridikoak «derrigorrezkoak» nahiz Sailaren alor desberdinek eskatutakoak egitea, xedapen orokorrak, jarraibideak, laguntza-deialdiak, Jaurlaritzaren Kontseiluaren erabakiak, administrazio-errekurtsoen ebazpenak, hitzarmenak, protokoloak, administrazio-egintzak eta -ebazpenak idaztea, eta kontsultei erantzutea.

- Prestar asistencia jurídica al Departamento elaborando los informes jurídicos «preceptivos» previstos en la normativa en vigor, así como los que se soliciten por las distintas áreas del Departamento, redactando disposiciones de carácter general, instrucciones, convocatorias de ayudas, acuerdos de Consejo de Gobierno, resolución de recursos administrativos, convenios, protocolos, actos y resoluciones administrativas, y contestando consultas.

- Gobernu Kontseiluaren gain utzi behar diren gaiak prestatzea eta izapidetzea.

- Preparación y tramitación de los asuntos que deban someterse a Consejo de Gobierno.

- Ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketako zerbitzua: sailaren aurrekontua egin eta nola betetzen den jakiteko jarraipena egitea, kontabilitate-espedienteetan eskuhartzea eta kudeatzea, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren aurrean eta programazio ekonomikoa burutzea, espedienteak tramitatzeko beharrezko gastu baimenak onartzea, aurrekontu exekuzioaren inguruko informazioa ematea, eduki ekonomikoa duten azterlan eta memoriak antolatu, koordinatu, eta behar denean, egitea.

- Servicio de gestión económico-presupuestaria: elabora y realiza el seguimiento del presupuesto del Departamento, gestiona los expedientes contables ante la Oficina de Control Económico, las autorizaciones de gasto precisas para la tramitación de expedientes, proporciona la información sobre la ejecución presupuestaria y la programación coordinando, en su caso, la elaboración de estudios y memorias de contenido económico.

- Saileko giza baliabideak kudeatzea eta antolatzea, Sail horretako arloetan langile egokiek eta behar adina langilek jardun dezaten programak garatzeko. Era berean, langileak prestatzeko planak ezartzea.

- Gestionar y organizar los recursos humanos del Departamento, de manera que las áreas de este tengan el personal adecuado y suficiente para poder desarrollar los diferentes programas. Asimismo, establecer los planes de formación del personal.

- Berritzailea eta gardena izanik herritarrei irekita egongo den, Sailaren alor desberdinek proposatutako helburuak lortzeko balioko duen eta kalitatezko zerbitzu efizienteak eta eraginkorrak eskainiko dituen administrazioa sortzeko behar den teknologia egokiaz hornitzea saila.

- Dotar al departamento de la tecnología necesaria y adecuada para construir una administración innovadora, transparente, y abierta a la ciudadanía y que sirva para alcanzar los objetivos propuestos por las diferentes áreas del Departamento ofreciendo servicios de calidad, eficientes y eficaces.

- Sailaren alor desberdinetan laguntza ematea, prozedurak mekanizatuz eta administrazio-kargak sinplifikatuz eta murriztuz herritarren eta enpresen elkarreragina faboratuko duten prozesuak zehazteari, txertatzeari eta etengabe hobetzeari dagokienez.

- Apoyar a las diferentes áreas del departamento en la definición, implantación, y mejora continua de los procesos en los que con la mecanización de los procedimientos además de la simplificación y reducción de las cargas administrativas se facilite la interacción con la ciudadanía y las empresas.

- Langileek euskara ikasteko planak egokitzea eta diseinatzea.

- Adecuación y diseño de los planes de aprendizaje del euskera para el personal.

- Batetik, Sailaren eta Sailari atxikitako Fundazio, Sozietate eta Erakunde Publikoen zereginean berdintasun-gobernantza txertatzea, eta bestetik, emakumeen eta gizonen berdintasuna faboratuko duten neurri espezifikoak «ekintza positiboak» diseinatzea eta sustatzea.

- Erabakiak hartzeko estatistikak eta txostenak egitea, eta Euskal Estatistika Planean eta urteko estatistika-programetan sartutako Sailaren estatistika-eragiketak egitea.

KABINETE ETA KOMUNIKAZIO ZUZENDARITZA

Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritza Saileko sailburu titularrari zuzeneko laguntza emateko organoa da, eta Sailaren lan-programaren plangintza, aholkularitza eta jarraipena egiten ditu.

Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzaren bidez, honako zerbitzu hauek aurreikusten dira:

- Behar duen laguntza eta aholkularitza ematea sailburuari, sailari dagozkion funtzio instituzional eta orokorretan.

- Sailaren komunikazio-politika zehaztea, zuzentzea eta koordinatzea eta, ildo horretatik, gizarte-komunikabideekiko harremanak garatzea eta zaintzea, sailari lotutako jardueren, erabakien eta politiken hedapena eta zabalkundea errazteko.

- Sailburuaren lan-programan (Agenda) zuzeneko laguntza ematea eta programa horren plangintza eta jarraipena egitea, erakundea ordezkatzeko egintzak bereziki kontuan hartuta.

- Saileko organoen ekitaldi publikoak, kanpoko jarduerak eta protokoloa programatzea.

- Sailaren eskumeneko arloetan, sailak gainerako sailekin izan behar dituen harremanetarako organoa izatea, baita arlo material horren inguruan sortutako sailarteko koordinazio-organoen arteko harremanetarako organoa ere.

